# EUSKALDUNTZEA PRESTAKUNTZA

| GUK | 2. ESPARRUAri proposamena |
| --- | --- |
| PROPUESTA | Se incentivará el aprendizaje del euskera a través de becas que impliquen la gratuidad de los cursos cuando se cumpla el aprovechamiento de los mismos. |
| Se considera que se cumple con lo propuesto | |
| AZALPENA | Getxoko Udala ez da Euskara ikasteagatik laguntza eskaintzen duen erakunde publiko bakarra; Jaurlaritzak HABEren bitartez eta Bizkaiko Foru Aldundiak ere laguntzen dute.<br><br>Erakunde publikook, modu osagarrian jokatzen dugu arlo honetan; Bizkaiko Foru Aldundia eta HABEren laguntza-sistemek ikasleen aprobetxamendu akademikoa laguntzen duten bitartean, Getxoko Udalak euskaltegian izaten den asistentzia laguntzen du.<br><br>Diru kopuruari buruz ere modu osagarrian jokatzen da; zenbait kasutan euskara ikastea doakoa da eta baldintzak betetzen dituzten kasurik txarrenetan, ikasleak ordaindutako matrikularen %80a laguntzen da.<br><br>Beti ere hiru erakundeon arteko informazio trukaketaren bitartez gain-ordainketa ekiditen da. |
| ACLARACIÓN | EL Ayuntamiento de Getxo no es la única institución pública que ayuda a l aprendizaje del euskera; en concreto el Gobierno Vasco a través de HABE y la Diputación Foral de Bizkaia también realizan aportaciones destinadas al aprendizaje de la lengua.<br><br>Las instituciones públicas actuamos de manera coordinada y complementaria; mientras la Diputación y el Gobierno Vasco ayudan el aprovechamiento académico que pueda tener el/la alumna/o, el Ayuntamiento de Getxo valora la asistencia al euskaltegi.<br><br>Esta complementariedad también se extiende a lo subvencionado ya que en algunos casos el aprender euskera puede resultar gratuito y en el peor de los casos y siempre que se reunan las condiciones mínimas establecidas, se recupera el 80% de lo invertido en la matricula.<br><br>La sobrefinanciación se evita con el trasvase continuado de información entre las tres instituciones. |

| Euskara ikasteko erraztasunak eta laguntza ematea |
|---|

| BL-EGIZU | 1. HELBURUari ekarpena |
|---|---|
| EKARPENA | Euskara ikastea doakoa izan beharko litzateke Getxon. Horretarako bitartekoak bilatu 2019-2020 ikasturterako. |
| Proposatutakoa betetzen dela irizten da | |
| AZALPENA | Getxoko Udalaren iritziz, Hezkuntza Sistema da herritarrak euskalduntzearen erantzule nagusia eta hori doakoa da.<br><br>Getxoko Udalak helduaroan euskara ikastearen doakotasuna ezin du bere gain hartu, hala ere esfortzu handia egiten du bide horretan: Udal Euskaltegia izateaz gain, herriko beste euskaltegiei ere laguntzen die Getxoko Udalak; azkenik, euskara ikasteko diru-laguntzak eskaintzen dizkie herritarrei eta horretan baldintzak malgutzeko ahalegin handia egin du Udalak herritarrek ahalik eta aukera gehien izan dezaten laguntza hauek jasotzeko. Baina Udala ez da euskara ikasteko laguntzak eskaintzen dituen bakarra; azken urteotan, Bizkaiko Foru Aldundiak *Euskara Eskura Txartela* sortu du ikasle bizkaitarrei laguntzeko eta HABEk ere laguntzak eskaintzen ditu mailaren bat egiaztatzen dutenei. Gure ustez, hauek guztiek lagundu egiten dute doakotasunaren bidean. |

| NANCY JORGE MEDRANO | 1. HELBURUari ekarpena |
|---|---|
| APORTACIÓN | Para  el aprendizaje de euskera sería bueno que los horarios sean accesibles como por ejemplo de 14:00 a 16:00, así no te perjudica por la mañana ni por la tarde, en este intermedio se aprovecha es mi opinión personal. Gracias. |
| Se considera que ampliando la formulación de la acción nº 1 en la dirección marcada en la explicación se puede integrar la aportación. | |
| AZALPENA | Los euskaltegis, es decir los centros donde se ofrecen cursos de euskera para adultos, necesitan un número mínimo de personas para poder formar un grupo. En muchas ocasiones si los euskaltegis no ofertan un determinado horario es por falta de demanda en ese horario.<br><br>Para paliar ese déficit los euskaltegis disponen, además de los cursos presenciales, de cursos de autoaprendizaje; en estos cursos tanto las tutorías como las sesiones de conversación se amoldan a las necesidades del alumnado.<br><br>Aun así el Ayuntamiento a través del Servicio de Euskera se compromete a trasladar la petición a las personas responsables. |

| BL-EGIZU | 3. HELBURUko 9. ekintzari buruzko galdera |
|---|---|
| GALDERA | Nola helduko diogu erdaldunak informatzeari? Zeintzuk kanal erabiliko dira horretarako? |
| ERANTZUNA | Udalak eta bere autonomiadun erakundeek erabiltzen dituzten komunikazio kanalak ugariak dira: Getxoberri, prentsa oharrak, sare sozialak, etxez-etxeko korrespondentzia… eta baita Getxo Kultura aldizkaria eta abar. Horiek, berez, badira herritar erdaldunen eta etorkinen artean euskarazko kultur eskaintza zabaltzeko bitarteko egokiak.<br><br>Hala ere, bide horretan sakontzeko asmotan, euskarri eta bitarteko horien udal-arduradunekin hitz egingo dugu neurri honek proposatzen duen helburua betetzeko martxan jarri daitezkeen hobekuntzak, aldaketak egiteko. |